

## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014**

### **OSALAN**

1. Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2014rako deialdia
2. Lan-arriskuen prebentzio-arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntza 2014-2015

1.- Izenburua

**PREBENTZIO ORDEZKARIEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO BAIMENAREN  
ETA DIRU-LAGUNTZAREN 2014RAKO DEIALDIA.**

2.- Araua

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. 35.-37. artikuluetan ezartzen ditu prebentzio-ordezkararen irudia, haren eskumenak eta ahalmenak.

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 18koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014ko ekitaldian prebentzio-ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematea nahi duten erakunde publiko zein pribatuei dei egitea.

Erakundeen baldintzak: Hezkuntza Sistemak aitortutako eta homologatutako ikastetxeak, edo Gizarte Segurantzako Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak edo egiaztatutako Prebentzio Zerbitzuak izatea.

Prestakuntza-ekintzak oinarrizkoak izango dira, Lan Arriskuen Prebentzioari eta Osasunari lotutako Lanbide arteko Akordioan ezarri bezala, eta bi zati izango dituzte: bata 16 ordukoa, araudi-arloko prestakuntza, eta bestea 32 ordukoa, prestakuntza teknikoa.

Zenbatekoa: 300.000 euro, gauzatutakoa: 87.088,50 euro.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko Deialdian guztira 25 prestakuntza-erakunde baimendu ziren Bizkaian, 13 Araban eta 19 Gipuzkoan.

Guztira, araudi-arloko 32 ikastaro (5 Araban, 17 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan) eta arlo teknikoko 17 ikastaro (12 Bizkaian eta 5 Gipuzkoan) egin dira.

1.- Izenburua

**LAN-ARRISKUEN PREBENTZIO-ARLOKO IKERKETA-PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA 2014-2015,**

2.- Araua

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 4koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena; honen bidez, lan-arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak ematea arautzen da.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lan-arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak prestatzea, sustatzea eta garatzea.

Nori zuzendua: EAEn erroldatutako pertsona fisikoak eta EAEn kokatutako pertsona juridikoak (publikoak zein pribatuak).

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa: Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino.

Gauzatzeko aldia eta epea: Diru-laguntzaren xede diren jarduketak urtebeteko epean egin beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jaso eta ondorengo egunetik hasita.

Zenbatekoa: 500.000 EURO: 250.000 euro 2014ko ordainketa-kreditua eta 250.000 euro 2015erako konpromiso-kreditua, 223.385,26 euro 2014an gauzatutakoak

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

93 proiektu aurkeztu ziren, eta 13 proiekturi eman zitzaien laguntza. 80ri, aldiz, ukatu egin zitzaien laguntza, proiektuaren kalitate zientifikoak ez baitzuen 15 puntuko gutxienekoa lortu.